


Bizkaitarrei Bizkaieraz

**74R**

385n. zenbakia • 2012 Irailla



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)  
[info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)

# Bilboko Edergarriak I.

Ipuin sariketa  
Amona Joxepa Anttoni

Galizia aldetik txangolari IV.



# Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

## 2012-2013 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 45. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 8an

### 45. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 8 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**  
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.  
Ez dozu ezer be idatzi bear.  
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.  
Eskerrik asko!

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila  
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com

# BILBOKO EDERGARRIAK I.

MUNETXEK EUSKERATUA – Bil. 2012/02/10 – Udaletxeko erakusketatik artuta

## ARDO EDALONTZIA.

Txikiteroen beira gogorrezko ardo-edalontzia. Esan oi da basu lodikote orreik alantxe egiten zirala txikiteroek, edaterakoan, eskuek tinko eutsi egiezan.



## ITURRI GORRI GAS-EDARIA.

Edabe ozgarria, gasduna ta alkohol bakoa. Zer esan andikoa Bilbao ta Bizkaiko istorian. Koronadun tapoia lenengoz ipinten asi zana.



## BIZKAIKO ESNEZALEEN ALKARTEA, BEYENA.

1953tik 1954ra bitartean Bizkaiko Esnezaleen Alkartea sortu zan Kastrejanako aldatz goran. Urte askotan makiña bat bilbotarrek edan eben Beyena esnea. Bimillagarren urtean desagertu zan.



## GARAGARDOAK.

1913an. agertu zan Jeronimo Montoriok eta Leandro Garaygordobilek sortu eben lanbidea. Iturrigorriko urek aprobetxatuz egiten ebezan garagardoak, izoztuak ta gasdun edariak Cervezas La Vizcaina deiturreagaz.



## BILBAOKO URA.

Berogarri dan urotz bakarra. Bilbotar talde batek Donostiko Jatetxe batean Bilboko ura eskatu ei eban esanez Bilbon txanpana ura legez edaten zala.



## AATE PIZTITEGIA.

Andre Kasilda Iturrizaren Parkean dago. 1920-1922 urteetan eratu eban Rikardo Bastida Arkitektoak, Elgero errekaaren urak lurgañeratuta putzu sonatua egíñez.



## BARKILLU SALTZAILLE BONI.

Aurreko gizaldi erdinguruan, Eliptika plazan gizon-zeko bat agertu zan barkilloak saltzen. Boni eban izen eta laster egin zan guztietzat ezaguna. Barkilloak. Barkilloak emen!!! Eskuz egindako azukre, urun eta olio-z osotutako goxoki fin-fiñak. Txirrinkada bakoitzeko 10 zentimo (txakur andi bat).

## IRUGURPILLAREN JOLAS~LEKU.

Ezta bilbotarrik Parkeko trizikloetan ibilli eztanik. Kiosko orlegian artu eta joanetorri arineketa ekin, neketu arte.



## PUPPY. LORAZKO TXAKURRA

Pupy txakurtxua, Jeff Koos ameritar arkitektoak sortua, alako batean Bilbora etorri ta bertan geratu zan. Urtean birritan aldatuten dau jantzia, 38.000 kolorezko landaratzuen bitartez.



## BILBAOKO KATAMOTZA.

Irudi au Lucas Lukarinik taiutu eban Pedro Izpizua arkitektoaren agindupean. Etxe baten ganean dago ipiñita makiñek erabilten daberen udal erangikorraren zabalkundea egiteko.




## KALEETAKO BURNI XAFLAK.

Kaleen izenak ipinteko plakak aspaldikoak dira. Erdi aiztuta egon badira be, 1980tik aurrera barritzuten asi dira.




## KARAKOLAREN KARGARRIA.

Zikonia itxurako garabia da 1958an taiututakoa. Etxeak, aurrerakiak eta blokeak mugituteko lenen goz erabili zana. Gaur egunez Museo Maritimoan dago erakusgarri gisan.



## ARTZABALAK.

Bilboko Baldosak 1942an Bilboko Udaletxeak marrazkitu ebazan. Osagaia lez burni txirlorak, morterozko zementoagaz gogortuta erabilten zan.



## SAN BLAS´EKO ARIAK.

Otsaillaren 3an ospatuten da San Blase jai eguna. Eta San Blas en lokarriak eskuratzeko oitura zabala dago, samako miñak edo gaitzak arintzeko santuaren mirari baten oroimenez. Legezko oitura da bederatzi egunez saman eroatea mesedea lortzeko asmotan.



## LOPEZ DE HARO´TAR DIEGO JAUNA.

Bilboko alkate ordezkoko zan Gorostizak asmatu eban irudia da Diego Lopez Jaunaren 1937ko omenaldirako. Izen orren Plazan dago kokatuta.



## POLO´KO GOZO ´A.

Salustiano Oribe jaunak sortu eban 1870 Askao kaleko 7an Licor de Polo deiturikoa, ta aginetarako garbigai Licor de Polo Oribe izenagaz.



# TXINBO SABOIA.

Victor Tapia izan zan 1863an Jabon Txinbo sortu ebana Deustuko Ribieran. Geroxeago Zorrotzara aldatu zan 1988 arte. Txinbo jaboiairen osagarria abere koipea zan batez be.



# GOROSTIAGAREN TXAPEL DENDA.

Frutuoso Gorostiagak zabaldu eban 1857an Bidebarrietako sombernu saltokia. Urte batzuk geroago Victor kalera aldatu zan eta Pirla familikoak egin ziran bere jabe. Txapela dogu gure nortasunaren ezaugarri andi bat. Bilbon erabilten dana baltza da, aurreko egala zorrotza daukana.



# IRUDITUTAKO PAPERAK.

Plaza Barrira ariñeketan.Kromopilla eskuetan bateren falta ete dodan ikusi ta barrienak diranak jakin gurea. Talde txikietan bata besteagaz kromoak trukatuuten..Bat, bi, iru, lau eskuratu ta au poza!



# DON ZELESEN IPUINAK.

Luis del Olmok sortutakoa da 1915.10.19an Santutxun. Gazeta del Norten argitaratu eban lenengo orrimutur idatzia. Arrezkeroz gizontxu barragarri onen 22.000 irudi marrazkitu ditu, beti be berbabako, surpeko beteaz ta geienbaten ezkeraldera begira.



## ALEJANDRO.

Alejando Cepeda, ez izenez El Niño de la Prensa ezagutua, Egunkari eta Loteri saltzallea zan. Arratsaldero El Hierro eguneroko moltzoa Obispo Oruetako lan gelan besapean artu ta kalez kale gogor oiukatzen oi eban. Zezenzale sutsu ta Atleti zale amorratua be bai.



## ARRESEREN BOIL EDO GRISOLAK.

Alfonso Arresek 1852an janari denda bat zabaldu eban Bilboko Alde Zarrean. Bere andreak egindako gozoki bereziek sekulako arrakasta lortu eban. Ain aundia ze denporagarrenan Bombontegi saltoki biurtu zan.



## MAIRU'EN JAN~BEREZIAK.

Iturribide kaleko 3an. Melilla ta Fez edaritegian Hamedek egiten ditu morotar pintxorik bikañenak. Pikante edo pikante barik oso onak beti. Gau bezperan pimento ta komino-gaz beratuta ta ikatzagaz erreta eskeintzen ebazan. Gaur egun Kafe Iruñan aurkitzen da.



## MAKAILLAU~ DENDA.

Artekaleko 22an. arkitzen da 193 -04-16 ezkeroz, Gregorio Martinek daukan janari denda da guztiontzat ezaguna dan Gregorio Martinen "Bakalada". Or ikusi leike irgarki au: egunero beratutako makallaoa.



# Amona Joxepa Anttoni



Ipuin Sariketako 4. Saria

### TRENEZ NOA TA ...

*Txirritak ba du bere gaietan,  
"Norteko Ferrokarilla",  
aren bertsoetan nire gogoak  
aurkitzen du kamamilla.  
Trenez noa ta bitarte ontan  
Barnean oska ezkillak:  
"Gorai batean euskal argia,  
ez zen gaur bezain zurbilla".*

### LEEN ARTAN SARTUZ...

*utziak ditut  
aurreko irurogei urte,  
irudipenez ordun noa ta  
geltokia det Otzaurte.  
Donostiatik Otzaurteraino  
bidea dela bitarte,  
errietatik igotakoak  
euskara ona dakarte.*

### I. TRENEZ NOA TA...

#### LEEN ARTAN SARTUZ...

Trenean noalarik aurreko irurogei urte aietan nire pentsamendua, bertsoetan diodan bezala. Eta ordungo gure familiaren oroitzapena. Gaurkoak amona Joxepa Anttoni dakarkit gogora: Eta 1940 urte inguruko gertakizunak. Ondoren dijoaztenak, trenaren otsarekin batera:

Joxepa Anttoni, gure amona, 1875 urte aldera jaio zen, Gipuzkoako Aian. Bertan ezkondu eta bizitu zen, baserrian, urte mordoxka batean. Senarra Patxi, izan zuen, gure aitona. Zazpi seme alaba izan zituzten. Zaarrenetik asita: Joxemari (nire aitajana). Anttonio, Luxio (nire aita). Eustaki. Inazio eta Manuel. Zazpiagarrena, Joxepa, jaio berrikan il egin zen. Gorai artan baserriak ez zuen etekin aundirik ematen. Ozta ozta bizi, otorduak betetzeko aia besterik ez zuen ematen. Eta famili osoak jaioterririk gertu dagoen



beste errira, itsasertzera, mugatzea erabaki zuen. Beraz nekazaritza utzi, arrantzale bihurtzeko.

Eta lau anai itxasoan asi ziren lanean, beraz, lurretik ixasora. Anai gaztea azken erri onetan jaio, zen. Au arotza izan zen. Gazteena izanik, itsasoko lanetan asi gabe, aukera ohea izan zuen beste anaiek baiño. Urte mordoxka pasa zuten lau anaiek itsasontziaren egin bearretan.

Gerora, azkenean itxasoak urbiltzen zituelarik, Iriburura famili guztia, txandaka. Eta an bakoi-tzak bere lan berriak aukeratu zituen. Fabrikan.

Berrogeita amabost urteko zela alargundu zen gure amona Joxepa Anttoni. Eta orrela aitona Patxi joan zitzaizen bizion mundu onetatik.

## 2. EUSKERAREN LARRIAK IRIBURUAN

Iribarnetik gertu, seme zaarrenak, Joxemarik, asierakoari eutsi naiean, baserri bat aukeratu zuen, bizileku. Fabrikatik gertu. Orrela baserria artu, esan bezala, eta sagardotegia ere jarri zuen. Eta sagardotegi orren inguruan, sortutako pasadizu batzuk aipatuko ditut.

Eta orrela 1940 garrengo amar aldian, kokatzen dut nire kontakizuna. Eta emen batez ere, garai artako euskeraren egoera, nabarmendu nai nuke. Gaur bezala, ezin esan pozgarria zenik. Baiña emen argi eta garbi utzi bear dut, iriburuan naqela eta ordungoa ere bertan kokatzen dela. Ez bait zen berdiña, iriburuko eta errietako giroa. Erri txikietan, batez ere, jaun eta jobe izaten bait zen euskera.

Beraz, leen artan dijoalarik nire kontakizuna, asieran aipatu dudun bezala, Iri buruko auzo batean, osaba Joxemariaren baserria det nire kontakizunaren kokaleku eta orrekin batera bertan duten sagardotegia. Eta an gure amona Joxepa Anttoni. Laurogei urtetik gorako gure amona. Izkuntza bakarra menderatzen du, berea noski, euskera. Eta ozta-ozta, belarriak erne, erdera pixka bat ulertzen du. Erreña Xeberi, seme Joxemariaren emaztea duqu. Eta auek iru seme alaba dituzte. Amonari bezala, izeba Xeberiri ere eta berdin senarrari arrotz zaie gaztelera. Ez dute bigarren izkuntza ori ikasteko aukera aundirik izan, beti etxeko inguruan ematen bait dute bizitza, baserrian, kalera gutxitan. Eta famili artean euskera, beren jatorrizko izkuntza izaten dute mintzabide.

## 3. SAGARDOTEGIAN

### 3.1 AMONA SUKALDEAN

Oitura: Etxean kaxuelan jatekoa prestatu eta sagardotegira joateko oitura izaten zuen jendeak. Eta an berriz berotu. Eta lan orretan sukaldean, amona Joxepa Anttoni. Batzuk erdaldunak izan. Eta an komeriak! Erdaldunak tutik ere euskera ulertzen ere ez. Eta amonak berea menderatzen zuen, soillik, ondo baiño obeki. Gazteletatik ordea, tutik ere ez. Itz batzuren esania artzen zuen alarik ere. Eta antxe ibiltzen zintzaizkion erdaldun batzuk: "Que bien está Ud., amona, ¡qué joven y que guapa! Eta ori aiña ulertzeko, ordea, bazeen gure amona.

Eta gero amona Joxepa Antoni sukaldekoak bukatu ondoren, sagardotegira urbiltzen zen. Eta an semeetako lauk musean. Joxemari, zaarrena, Anttonio, Luxio, nire aita, eta gazteena, Manuel. Inazio berriz, istripu batez trenak eraman zuen bizion mundu onetatik, 36 urte besterik ez zituelarik. Eta sagardotegian gaudelarik, esan bezala, onela ekiten dio amonak, bere semeei:

Erdaldun txatxu oriek uste ditek erdera ez da kidalako iñuxentia naizela edo... Txoro alenak! Ni "guapa eta joven...!"

An etxean, baserrian, eta aldi berean sagardotegiko sukaldean bere egunetako batean gertatutako pasadizoa, "guapa eta joven "alegiarena, du gure amona Joxepa Anttonik sarri izaten duena.

Iribarnera amar minutu besterik es daude oiñez joanda ere. Eta, a zer nolako aldaketa duen giroak, euskerarekiko! Gure amonaren baserria, esan bezala, iriburutik gertu, zabaldi batean dago eta an beste dozena bat baserri daude. Eta dantetan euskera besterik ez da entzuten. Zoaz iriburu barnera, eta erdera besterik ez dezu entzungo. Eta batzuetan, ere onelakoak ere entzun egin bear, baserritarrak ikusita gero: "Mira boronos" "Son muy desconfiados". Y en lugar de cinco dicen Cinco". Au dek arraioa! Bere izkuntza eta bigarrenaz ala edo nola ulertzeko eta adierazteko adiña jakinda, eta bat besterik ez dakienak, eta ura ez ain akademikoki, par egin bear, baserritarraren bizkarretik. Orain gure amona Joxepa Anttoniren baserrian dagoen sagardotegian gaude eta ara, orkoa nola den. Bertsoan.

### 3. SAGARDOTEGIAN:

#### 3.2 Bertsotan

Amari entzunda gero, erdaldunekin gertatzen zaiona sukaldean, Luxio bere semeak bertsoan ekin dio, bere sentipena azalduz.

#### Euskera aldotz gorri.

1. Euskeraren malkoak  
aipatzera noa,  
berri txorrek guretzat  
betiko giroa.  
Gure Erri zaarrea  
betiko leloa:  
biotza estu eta  
begitan malkoa.

2. Noiznai gertatzen zaigu  
txarra notizia,  
gure aurka badago  
non nai malezia.  
Arrotz gera etxean,  
au egi gazio!  
Ortik euskarentzat  
dator minbizia.

3. Erri bakoitzak badu  
bere nortasuna,  
guk pazkorik ez dugu,  
beti garizuma.  
Auxe da zorigailza!  
dequla guk, ama!  
Euskal Errian morroi  
bear euskalduna,

4. Kanpokoak nagusi,  
gu galdu gordean,  
ezin gera konpondu  
senide artean.  
Sokatiran gabiltza  
aitaren etxean,  
ez al gintezke ibil  
guztiok batean?

5. Guk eutsi geureari  
anai euskotarra,  
mingarri izaten da  
etsaiaren parra.  
Lantzen jarrai dezagun  
geure euskera zaarra,  
jatorrizkoa dugun  
izkuntza bakarra.

Gazte batzuk, sagardotegiko  
bartzar batean bixi xamar dabilta.  
Ez dute onartzen diktadurarena.  
Zerbait ere aldarrikatzen dute  
askatasunaren alde. Eta kapaz  
dira, zerbaitetan ere sartzeko.

Orientzat ere baditu bertsoak Luxiok, nire aitak, amonaren semeak, eta ora nola ekiten dien bertsoan, gazte aiei.

#### GAZTE maiteok, entzun:

1. Gazte bizi lirainak  
geran sasoean,  
ekintza ta kemena  
dira geienean.  
Iritzi batzuk nago  
eman bearrea,  
leengoak ta gaurkoak  
arturik batean,  
gazte bait gera denok  
zaartu bitartean.

2. Gazte: iaiz eskaintza,  
atsekabe ta poz,  
munduratu ginenok  
or batera gator.  
Iritzietan berriz,  
Nola izan ados?  
Mundua ortxe dabil  
parrez eta malkoz,  
kopeta ilun eta  
arazoak jasoz.

3. Gazte indartsu, trebe,  
i aiz berrizale,  
eta aldi berean  
geroaren jabe.  
Zer litzake mundua  
ire lanik gabe?  
Gure jaio-lurrean,  
ez leka ez ale,  
emateko gutxi ta,  
geienok eskale.

4. Gudatean i odol!  
pakean emankor,  
etorkizuna beti,  
iregan dago or.  
Mundua iri gazte,  
ia dena dik zor;  
egi borobil auek,  
ukatzeke gai nor?  
Itsua izanik eta  
dudarik gabe gor.

5. Ire bizimodua,  
ekin eta ekin!  
giar fina aiz eta,  
ez daukak ondakin.  
Ire izerdi ona  
biurtuz etekin;  
lantegietan ba dek  
emaitza irekin,  
iartu induenak  
au ondo bazekin.

6. Gizartearen morroi,  
besteak nagusi,  
ire lanak geiago,  
ez al dik merezi?  
ezkontzeko etxe bat,  
ik nola erosi?  
Diru beltzaren truke  
prezioak azi,  
bazezok konpontzeko  
makina bat auzi.

8. Gierora izan inteke  
Erri agintari,  
ordurako urteak  
gaiñean nabari.  
Lantegiko buru ta  
indarretik nagi,  
oriek direlarik  
dirua ugari,  
beartsuei laguntzen  
gogoz saia adi.

9. Ogeita amar bat urtez,  
gu gera su ta gar,  
baino denbora ere  
or dijoa azkar.  
Bide orretan inor  
ezin izan bakar,  
gutxien uste dela  
biotzean dardar,  
urteak pillatuta,  
azken batean zaar.

Gazteak, begira-begira gelditu zaizkio nire aitari, pixka bat txundituta bezala. Aqian ulertu diote, bai, esan duena, baiña oraindik gaztetxoegiak dira, sakon-sakonetik artzako bertso orien edukia eta mamia.

Gazteak aipatu ditudanez gero, nire gaztaroa datorkit gogora. Nire pasadizu bat ain zuzen: Osabak baserrian II arroako arri zilindroa egukitzen zuen. Kilotan 137,5. Emeretzi urte nituen, eta bat batean eldu eta bizkorrera jaso nuen. Geiago ez nuen ikutu. Arrisku aundikoa bait zen, gainera eroritzekoa edo, oitua ez zegoen batentzat, ...batez ere kalekume batentzat. Arria oso-osotakoa zen, ez gaurkoak bezalakoa :Ustu eta burdiña sartuta aunditasuna murriztu. Eta elduleku egokituekin. Ark beatz erdiak sartzekoa besterik ez zuen ematen...

Eta orain bertsoan bezala, "azken batean zaar"...

#### 4. ILLUNABARRA

Illundu du. Gau beltzak estaltzen duelarik ingurua. Amona goiko geletara igo eta berean dago. Leioan... begira. Aurrean, urrutian, iribarne aldera, elizaren dorrea. Eta orrela begira dagoelarik, semea, seme zaarrena, etxekoa, Joxemari, gerturatu zaio.

Zer dio berorrek, ama, leiotik begira?

Ementxe negok, denbora pasa oeratu aurretik. Eta aurrera begiratuta, elizako dorrea ikusten duelarik, auxe dio: Naiago nitek antxe banengo!

Bi kilometroko bidea dago, ordea, eta beraren-tzat geitxo.

Ama gau on bat pasa beza berorrek. Berdin seme.

Semea joan da bere gelara eta andik pixka batera, amonaren gelan otsa: "Aita gurea zeruetan zerana, santu izan bedi zure izena, betor gugana zure erreinua egin bedi zure borondatea, nola zeruan ala lurtean..."

Gau illuna. Ozkarbi. Izartsu. Isiltasuna. Arqjak itzali dituzte baserrian. Eta gava aurrera doa, bere kolkoan artzen ditue-larik, mundu onetako ondasunak eta baita ere maleziak. Azken auetakorik ez dago

amonaren baserrian. Xume-xume, ortxe bizi dira, eguna joan eta eguna etorri, bereari eutsi naiean. Ez zaie erraza gertatzen beren kulturaren aldetik. Iribarnetik beren baserria gertu badago ere, bi kilometro exkax... An arrotz sentitzen dute beren burua. Erdaldunak, nagusi. Eta giro politikoak ez du batere laguntzen. Are geiago. "Habla en cristiano", esango die bein baiño geiagotan... Amaika ikusteko jaiok gera...!

#### 5. NIRE LEENGO PENTSAMENDUEN AMAIERA. ORAIN IRUROGEI URTEKO GERTARIEKIN ARITU NAIZELARIK.

Trena iritsi da Otzaurteraiño ( Erri ori Gipuzkoan dago Napparroako mugatik gertu). Nire ibilbidearen abiapuntu, Aizkorri mendiko gailura zanpatzeko asmotan. Une batez ere trenaren otsa isildu da, geldirik dagoelarik, jendea irten arte. Eta aldi berean nire pentsamendua gaurkotasunean, eta onako burutapena:

Geltokiraiño iritsi naiz ta,  
gaiñean degu Aitzkorri,  
bidean gora goizetik eta  
arratsaldetik etorri.

Kultur gailurra euskara degu  
eta gainera jatorri,  
euskaldun anai goia nai badek,  
ba, eutsiok bide orri.  
Joxemari Murua Gori

"Luxioeneko"  
Jose Mari Murua





# Galizia aldetik txangolari (4)

2.011n Bagillaren 9tik 2.011n Bagillaren 16ra ADIÑEKOAKIN

## BIDAIAREN TXANGO EGUNAK.

### 2.011n Bagillaren 11.

7retan jagi giñan 8rak eta 20 minutu ziranean gosaria artu ta 9retan busera igonda Konpostelako Santiagoren Eleiz Nagusia eta Konpostelako erri inguruak ikustera joateko.

10 1/2etan eldu giñan Konpostelara, eta Santiagoren Eleiz nagusiaren aurrean asi jakun Adela Adiñeko gidariak, bertoko andre gidari bat eskubidedun lez aurkezten, berak erakutsi ta adierazpendu egiezan Konpostelan ikusi bear genduzenak.

### Santiago Apostolua.

Nor izan zan Santiago apostolua ?.

Nik daukadan iztegian esaten dau: Zebedeoren semea zala, eta San Juan ebanjelariaren anaia.

Erdi ugarte edo peninsula onetara etorri ta Jesusek irakatsi euskuzenak zabaldu edo aldarrikatu ebazala, eta Zaragozan<sup>(1)</sup> egoala, zutarri<sup>(2)</sup> baten gaiñean Ama Birjiña bizi zala agertu ei jakola.

Santiago Jerusalenera ostera itzulita, 44garren urtean I Eroses Agripak arrapatu ta atxilotu ondoren lepoa moztu eutsola, eta beren gorputzeko ondatkiñak Konpostelako Santiagon dagozela.

Eta 2.011an Uztailaren 25an gure egutegi takoak dakarrena. Uste dot gure Olazartar Martin apaizak, eleizako kondairatatik artuta idatzitakoa dala, eta auxe esaten dausku:

“Galileako arrantzaleen artean Jesusek Beragaz ibilteko aukeratu ebezanetariko bat Santiago dogu”.

Barru beroa zalako edo, Jesusek Berak ipini eutson trumoiaren Semea izena, Juan bere anaia gaz batera.

Bero aldi baten, Samaritarrak Jesuseri ostaturik emon gura izan ez eutsoenean, euren aurka Zerutik sua jatsitea eskatu ebalako ezarri eutson izen ori.

Santiago izan zan bere fedeagaitik lenengo odola isuri eban apostolua, Apostoluaren egiñak deritxon San Lukasen liburuak diñoanez.

Antziñako edesti zarrak diñoanez, Espainara etorri ei zan, Konpostelara, lurraren azken mugara, eta Zaragozan Andra Maria agertu ei jakon oraindiño mundu onetan bizi zala.

Edesti guzti au kondairazaleak gaur ez daukie egi-tzat, baiña eundaka urteetan Konpostelako eleiza ibiltarien elburu lez dogu.

**Nik Konpostelan erosi neban, Konpostelako Santiagoren liburutik: “Còdice Calixtino. Libro V. Capitulo III”tik artuta dagoena, kondairan asieran esaten dauana aurkeztuko dautsuet.**

(1) Zaragoza = Orduko denboratan “SALDUBA”ren euskal izena euki ebena. (2) Zutarri = pilar de piedra.

Konpostelan ez zan egon ezer eta gitxiago Santiago ezagutu, arik eta IXn gizaldian beren izena katolikotasunezko erlijioaren bidetik, zabaltasunezko ospe aundia artu arte.

Konpostelako edestiak esaten dauan lez, “Iria Flavia”ko Teodomiro gotzaiñak Pelayo eremutar edo bakartiarrengandik jakin ebala, zelan urbilleko basarte baten gaba askotan, izugarri edo ikusgarritzko gauzak sortzen zirala, eta aingeru bat be agertu zala inguru orreitan.

Teodomiro bere jakin-miñean, bertora joan zan eta sartuaz batera Zeruko argiak ikusten joan zala, sasi arteko inguru baten arnabar edo arbiziko illobi<sup>(1)</sup> bat aurkitu eban.

**Aingeruak izango ote ziran, Jerusalemetik arnabarrezko illobi ori, aizetik Konpostelara eroango ebenak orduko denboretan ?.**


Dana dala, Teodomiro gotzaiña bereala joan zan, orduan Asturias eta Leoneko errege izan zan II In Alfonsogana<sup>(2)</sup> esaten zer ikusi eban, eta Alfonso poztasun andi baten, an inguruan egon zan eleiza birreskuratu ta edertuta, ararte Iria-ko gotzaiña izan zan au Konpostelara aldatu eban.

Ortik aurrera ipui edo ta eleztarrak ugaritu ziran zabaltasunezko eztanda aundi bat lez, eta Europa guztitik asi ziran Santiagorako bide barriak zabaltzen, arik eta Eleiz Nagusi ori bir-eraiki zanetik aurrera, bere goi maillako ospe aundiena XIIIn gizaldian lortu arte, Europako errege ta katolikotasunaren erlijioak mauritarren aurka egin ebezan alegiñekaz gurutz gudaren zabalkundezko aldarriketa bidetik.

Gaur be ortxe dabil jendea, baiña erlijiozko berotasun barik, danok dakigulako ipuin bat baiño besterik ez dala, katolikotasunaren ingurukoak izan ezik.

Nik, taldean ikusten ta entzuten nintzala gidariak esaten ebana, liburutegi bat ikusi neban eta aurrean daukadan liburua erosten nengoela, taldekoak galdu jatazan, eta aurkitu nebazanean gidariak ordu beteko epea emon euskun, erritik zear gure izan genduna egiteko.

Lourdesez eta nik, alaba, suin ta Josu billobarentzat txibiskeri<sup>(3)</sup> batzuk erosita, edandegi batera sartu giñan, eta ondo egositako olagarroaren platerkada jan gendun.



(1) Arnabar edo arbiziko illobia = sepultura, o, tumba marmorea.  
 (2) II In Alfonso 791-842 urte bitartean bizi zana. (3) Txibiskeria = chucheria, recuerdos sencillos.



Ordu bata zanean igon genduan berebil busera Sanxenxoko ostaletxera joan eta 2etan bazkaltzeko.

3 1/2etan bazkaria amaituta igon gendun gelara, eta arratsalde osoa aske itzi euskun lez, Sanxenxo erri ta Silgarreko ondartzatik ibili giñan ikusle, 8 1/2etan ostaletxera joan eta lagunakaz alkartuta, 9retan afaltzera joateko.

Gabeko 11tan ostaletxearen beko gela andi baten, eresi edo soiñua euki gendun zeozer artuta gure ebenak jantzan egiteko, eta geienak ordubatakarte egonarren, gu 12etan joan gintzazan gelara lo egiteko.

## 2.011n Bagillaren 12an.

7retan jagi giñan, 8 1/2etan gosaria artu eta 9rak eta 1/4renetan berebil busera igoteko.

Gaurko ibilbidean, Portugalen aldeko muga barruan dagon “Valença do Minho” erri politorren gazteluan, eurak eskeintzen dabezan eredu zko oroigailuak erosteko.

Eta erri ortatik itzultzen goazela, Galiziaren aldeko mugan dagoen Tui erri polita ikusteko.

Ori izan zan Adiñeko egitarauak esaten euskuna baiña Tuin geratu gintzazan, Adela gidariak obeto ikusten ebalako alderantziz egitea.

## Tuy erriaren edestia.

Tuy, Pontebedrako lurradearen erri polit bat da, 66 Km karratuetan eta 13.452 biztanlekin inguru<sup>(1)</sup>, Portugalen “Valença do Minho” erriaren mugako beste aldean, Miño ibaiak itsasoratu egiten dauazan beren uraren eskumaldeko mendi txiker baten gainean kokatuta dagoena, bere XI-XIIIin gazteluzko eleiza nagusiarekin, eta beste eleiza batzuek azkeneko ta klasiko edo jator-tasunezko era barrian eraikita dagozanarekin.

Edestiko kondairak esaten dauan lez, Tui, Troyako gudan antzezlaria nagusi izan zan Diomenesek eraiki eban bere aita Tideoren omenez, eta orregaitik izen lez aldikadatan esaten eutsiela Tide, Tade, Tude, Tuda, azkenean Tuirekin geratu arte.

(1) 1.980ko urtearen baiño ariñago egin zan azkeneko autarki-errolakoan.

K.a. VIII-VIIIn gizalditik dator keltiar kastro gudaletxearen jendekuntza, beren ordezko irudi andiena Aloia mendian agertu diranakaz.

Erromatar edestilariak Tude ta Gaztelu Tide-gaz aipatuten dabe, Aloia mendian Grobio keltiar leiñuaren Uri nagusi lez aipatzen dabenean, gero Louro ibaiaren ondoan Buenabentura auzunera aldatu ziranak eta azkenez daukan lekuan kokatuta.

Tui-ren edestia sendoa izan da, K.a. 137an Dezimo Junio Brutok bere gudu indarrakaz lurralde orreik erromatar itxuratuten asi zanetik, Antonioren XIXn ibilbidea be izan zalako, "Brakara Augustatik asi ta, Lukus Augusti ta Brigantiuneraño.

K.o. IVn gizaldian Sueboak sartu ziranean, Tui erregetzaren Uri nagusi lez aipatzen dabe Rekiamundogaz, eta Vn gizaldian erromatarren aldiari gotzaindegi ta Witiza bisigodo erregearen gortea be izan zan Monterreal edo Pazos de Reis-eko gazteluan. Biak egiten eben urrezko dirua.

721ko urtean, mauritarrak sartu ziran Tuin indarrez, arik eta 740ko urtean I Alfonsok berrezkuratuarte.

Normandoak be sartu ziran indarrez, 844ko urtean I Ordoñok bota arte, eta onek erria gizarte geiagorekin indartu eban.

IIIn Ordoñok gogortu edo sendotu eban erria Tui daukan lekuan kokatuta egoteagaitik, erromatar, bisigodo, norbegiar, arabiar, frantzes eta portugalekoentzat leku eziñ obeagoa izan zan euren lapurrezko sarraldiak egiteko, arik eta 1.071n D. Garzia errege ta bere emazte Urraka erregeñak euren jar leku lez berreskuratu edo egokitu arte.

Bere Urizar guztia oroikarri bat da, eta daukan gauza ederrenetarikoetatik, 1.120ko urtean eraikiten asi ziran gaztelutako eleiz nagusia eta 1132ean bedeinkatuta gaur arte beren lanakaz lotuta etorri dana da.

1.170ean IIIn Fernando erregeak, San Bartolomen-go auzotasunean egon zan Tui Uri nagusia, len bere lekua izaneko gaurko lekura aldatu eban, bertan egon ziralako gotzaindegi, eleiz jendearen jarleku ta eleiz nagusia, erria inguratzen ebazan ormak sendotuta portugaldarren aurka, eta baimena emonda jende geiagagaz indartzeko.





Gaztelu Eleiz ori, ederra da daukan erromatar<sup>(1)</sup> eta mako edo uztai zorrotzeko<sup>(2)</sup> itxuran eginda aurre aldeagaz, bertan apaindura ederrenean zizelkatuko Santu ta igarlariak edertasun guztiagaz aurkeztuta, Galizia guztian ederrena dana.

XVn gizaldian, zerga arau edo ordarauak batzeko agindu ebazan Murostar Diego gotzaiñak, Tui-ren portuko mugialdi andian, portu ta salerosle biltoki ederra zalako denbora areitan, eta ainbat lagunarte ezbarðiñak euki ebazanetik, judu erkidego bat batzartoki bigaz be euki eban, eta erritik Konpostelako Santiagoren Eleiz Nagusira joateko, berezko bidea be izan zan.

1.640an Portugalegaz borrokan ibili zanean, Uria inguratu egiten ebazan ormak aldatu ta egokitu ziran, orduko borrokaren aurkako babesak eskatzen eban lez, eta 1.664an Galiziako erreinuaren batzar nagusiak egin ziran bertan.

1.755eko urtean Lisboako lurrikara gogorrean, bere Gaztelu Eleiz nagusia erroiztu edo oldartzeko<sup>(3)</sup> arrisku gogorrean egon zan, eta gogortu egin bear izan eben zutik iraun egian.

Bere barrua ondo edertuta daukie, XIV gizaldian otoiz toki nagusia egin ebenagaz, Koruan arlanduan<sup>(4)</sup> egin ebena, eleiz nagusiaren lan ederrenetarikoko bat dana, eta XIVn gizaldian Ama Birjiñaren irudia jarritako umetxoagaz, etxandre lez esagutzen danagaz.

XVn gizaldian Santa Katalinaren otoiz tokia egin zan, XVIn gizaldian San Telmoren otoiz tokia, XIIIn gizaldian bera il zan etxe gaiñean 1.769an asi ta 1.803ko urte bitartean egindako bere aldare buru ederragaz, beste erlikien artean Gonzalez eta Telmotar Pedorenak daukazanak eta abar.

Beste gauza ederren artean daukiena, XVIIIn gizaldiko Santo Domingo, San Bartolome, eta San Franzizkoren eleizazko lekaretxeak, XVIIIn gizaldiko Klarisaren lekaimetxea, Uriaren laguntzaille lez daukien San Telmoren otoiz tokia, Errukizko etxearen otoiz tokia, Udaletzeko enparantzan eta Eleiz Nagusiaren ondoan dagon eleiz-barrutiaren edestiko liburu ta agiriaren gordeleku ta erakus tokia<sup>(5)</sup>, eta mugan San Telmoren aberriko ostaletxea.

(1) Erromatar = estilo romanico. (2) Mako edo uztai zorrotzeko itxuran = estilo ojival. (3) Erroiztu edo oldartu = derrumbarse. (4) Arlandua = piedra sillar, o, de silleria. (5) Eleiz barrutiren edestiko liburu ta agiriaren gordeleku ta erakus tokia = museo artchivo històrico diocesano.





Tuin bertan be badaukie beste erriarteko gertakizun entzutetsu andi bat be, txalupakaz egiten dabean “Miño ibaiaren beraldia”.

Tui, kokatuta dagon lekuagaitik, garrantzizko erria izan da Galiziaren edestian, eta orregaitik izan zan erregetzazko 7 lurraldearen Uri nagusizko garrantzi aldian, andienetariko bat, 1.833ean egin zan gaur daukien antolaketararte.

1.809ko urtean, Napoleonen gudal nagusi Soutl mariskalak, kalte andiak egin eutsozan erriari, euren gudaltegi nagusi lez aukeratu ebanean.

Jendea Portugalera eroateko portuko txalupen lan andia, XXn gizaldiko azken aldian erriarteko zurbia egin zan arte iraun eban, eta Santo Domingon kokatuta egon ziran salerosteko erosgai mozkiñak 1.940garren urterarte.

Bere auzotasunezko Udalaren barruan Aloia mendia bere San Julian basiliza be badaukie bereztasunez azitako zugazti ederrakaz eta 1.968ko urtearen

eskeroztik aberriko onaurki lez<sup>(1)</sup> artuta dago, bertan ospatuta Atsekabezko<sup>(2)</sup> Ama Birjiña eta San Julianen eleiz txango edo jaialdiak.

Oso polita da Tui-ko erria, eta geiago itxasoak emoten dautson edertasunagaz.

Gero oso polita dan “Valença do Minho”ko errira joan giñan erosketa batzuk egitera eta berebilbusera ordu bata lauren gitxiagotan igonda, gure ostaletxera joan giñan bazkaltzera, 4 1/2etan artu gendun busa ostera Pontebdrako lurraldean Poioko lekaidetxea ikusteko.

## Poioko lekaidetxea.

Poioko erriak 33Km karratu daukaz eta 10.302 biztanle<sup>(3)</sup>.

Pontebdratik 4 km.ra kokatuta dago, arrian ondo landutako beneditinotarren San Juan lekaretxea<sup>(4)</sup>, 1.890eko urtearen eskeroztik merzedario edo me-

(1) *Aberriko onaurki lez artuta = reconocido de interes nacional.* (2) *Atsekabe, estuasun, edo estutasunezko Ama Birjiña = Virgen de las angustias.* (3) *1.980ko urtean baiño ariñago egin zan azkeneko autarki erroldakoan.* (4) *Eskorialaren beste esango neuke nik.*



sedetako lekaideak bizi dirala, nobizioetxe, kultur edo erriajakintza, otoitz, eta ostaletxearen serbitzuko irabazian bizi diranak.

Kondairak, VIIIn gizaldian Bragako San Frutosok egin ebala lekaidetxe au esaten dau, gero ainbeste gizaldietan edertuten joan dana gaur arte, eta Santuaren azurrak Santiagoko Eleiz Nagusian gorde zirala gero Konpostelaren Santiagoko Kiroga ta Palazios kardinalak Portugalen dagon Bragako eleiz nagusira eroanda.

Gure denborako 940ko urtearen agirietan aipatzen ei da Poioko lekaretxea, eta iñork ez daki zelango itxura euki eban VIIIn gizaldian. Dakiena da, Xn gizaldian Fromariko beneditar ? apaizburuak barriz eraiki ebala, benediktinoak Xgarreneko gizaldiaren asieran asi ziralako zabaltzen, eta 942an lekaretxe orretan beneditarrak ondo atonduta egon ziralako bertan.

Xn gizaldi orretan Europa osoan, danoren gogetan erabilten zan mundu onek milla urte bete egiten ebanean amaituko zala, eta, danak ikaratuta egon ziralako, orregaitik ainbesteko arreman estuak ezberdintasunezko lekaide ta gizartearen artean XVI-XVIIko gizaldietan bere goi maillazko ospetasun edo ta ospekundetza Galiziako lekaretxeen artean lortu eban.

Bere liburutegian, 600 larrukizko agiriak eta 80.000 liburu baiño geiago dagoz, eta 1.978ko urtearen eskeroztik Pontebedrako lurraldearen Aldundiak lagunduta, “Erandoki edo mosaiku eskola ta ormagille edo argin eskola”ko jardueran irauten dau.

Eleiz ederra dauka, bere aurre alde arlandu ederean eginda, eta dorre bi barroko itxuran alboetan

inguraturik, gorpu bi aurkezten dauskuna, doriko bata eta korintio bestea, etxe guztia galiziar gaztelu edo jauretxearen antzerakoan.

Eta bere barruan, Santo Kristoren aldare burua, Balbanerako Ama Birjiñaren zizeltutako irudiagaz, Santa Trasmunda bisigotikaren arrillobia, berau Kordobako espetxetik aizeetatik zear aldatu zana bertoraiño, eta XVIIn gizaldian eginda, eleizbirak egiteko daukan kalistro<sup>(1)</sup> edo zimitorio<sup>(2)</sup> ederra.

Bragako San Frutoso au 665eko urtean Jorraillaren 16an Montelinoseko lekaidetxean il zan, eta bere ikasle San Balerio, 695eko urtean Otsaillaren 25ean Monteseke San Pedoren lekaidetxean.

Bosterdieten urten gendun Poiotik Konbarroseko erritxora joateko.

1.973an Konbarroseko erria, edestiaren antzez edo artezko esparru lez<sup>(3)</sup> izendatu eben, eta argiñaren erria izanez gain, ainbeste pelikula egin dira erri orretan.

Agudeloko San Martiñoren erromatar eleiza, eta beranduko gotikoan egindako Kurro parroki politak daukoz.

Itxasbazterreko erri polita da eta kale guztiak biltzen diran lekuetan ondo landutako eleiz-gurutz ederrak eta 30 azitegi edo gari ta artoak gorde egiten diran zeñ etxetxu antzeko ederrauak<sup>(4)</sup> daukoz.

Zortzirak lauren gitxiagoetan urten gendun Kobarrosen erri politatik, 9etan gure ostaletxean irriparrizko solaskerian afaltzeko, eta 11tan gelara lo egitera joateko.



**Atutxatar Paul**  
*Zornotzan 2.011n Uztailaren 30ean*

(1) Kalistro = atrio, claustro, corredor, pòrtico. (2) Zimitorioa = claustro de la iglesia. (3) Edestiaren antzez edo artezko esparru = recinto histórico artístico. (4) Azitegi, edo ta gari ta artoak gordetan diren lekuak = hórreos.

# Euskaldun barrientzat

Ikasten

## Zazpi utsak



### ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....  
..... kalean (auzoan)..... zenbakian  
..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,  
an daukadan     zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Ixil, ixilik dago kaia barrenian ontzi zuri polita uraren gañean.  
Goizeko ordubietan esnatutzen gera arrantzaliarekin joateko urrutira.  
Pasatzen naizenian zure leiopetik negarrak irtetzen du begi bietatik.  
Zergaitik (5) negar egin.  
Zeruan izarrak dagos itxaso aldetik.



**Bermeoko portua**